

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko martxoaren 30a. VIII. urtea. 2.201. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Euskalariak datorren apirilaren 13an iritsiko dira Tolosaldeko herrietara

Apirilaren 7an irtengo da 17. Korrika Trebiñutik; korrika batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu Amezketan, Adunan, Villabonan, Alegian eta Tolosan

Adunatik barrena iritsiko da Korrika eskualdera goizean goiz; Adunatik 06:16ean pasako da, eta azken herria, Ikaztegieta, 08:46ean utziko dute atzean 03

Amasa-Villabonako toponimia ikerketa herritarren eskura jarri dute

Imanol Goikoetxeak herriko kultur ondare toponimikoa berreskuratzeko azterketa egin du; Gurea Zineman ikusi daiteke emaitza 05



Herritarrek Gurean ikusi dezakete ikerketaren emaitza. E.MAIZ



→ **Izaro eta Elene zuzenean ikusteko aukera.** Izaro Saizar berastegiarrak eta Elene Arandia tolosarrak 'Batera LIVE' izeneko ikuskizuna eskainiko dute ostiralean Leidor aretoan 20:30etik aurrera. Bi gazteek ETB telebista kateko 'Bi Gira' saioan egindako ibilbidea izan da emanaldiaren abiapuntua. 02



HITZAK harpidedunentzat
3 diska ditu


Peachy Joke
taldearen
Asian Tiger Mosquito



HITZAK harpidedunentzat
bi sarrera pare ditu

**Izaro eta Irene
Batera Live**
ikuskizunerako

Apirilak 1 • Ostirala
20:30ean • Tolosako Leidorren



HITZAK harpidedunentzat
bi sarrera pare ditu

Ateka Rock
jaialdirako

Apirilak 2 • Larunbata • 20:30ean
Leitzako Kiroldegian



sarrerak

Salgai dira jada Udaberri antolatzen duen erromerirako afari txartelak

Datorren apirilaren 16an izango da aurtengo erromeria, eta Laket taldea izango da afalondoko dantzaldian

I. Urkizu

Salgai dira jada, Tolosako Udaberri dantza taldeak antolatutako erromerira afaltzera joateko txartelak.

Datorren apirilaren 16an izango da aurtengo erromeria, eta 19:45ean Plaza Zaharrean izango dute hitzordua bertaratu nahi dutenek. Handik abiatuko da trikitxaranga poteoa, eta Alde Zaharreko kaleetan barrena fandango eta arin-arinak dantzatzu poteoa egin ondoren, 21:00ak aldera, afaria izango da Zerkausian. Ohitura dutenez, afalondoa Larrain dantza dantzatuko dute, eta gero, dantzaldia izango da; Laket taldearen ardura izango da aurtengo dantzaldiari musika jartzea.

Erromerian afaldu nahi duen edonork, alde aurretik erosi beharko ditu afari txartelak, Orbela, Raku, Ikatzka edo Denak tabernetan, 16 euroko prezioan.

Zazpigarren erromeria

Zazpigarren urtez jarraian antolatuko du Udaberri erromeria, eta «urtez urtez jende gehiago hurbiltzen» dela diote. Hasiara batean, dantza taldearen 50. urteurrena girotzeko ekitaldi gisa proposatu zuten ideia, baina 2007ko urteurrenaren geroztik ere, aurrera jarraitu dute, urtez urte berrikuntzak gehituz.

Azken edizioetan 120 lagun inguru bertaratu izan dira Zerkausira, eta «apirilaren 16an ere aurreko urteetako giroa sortzea» espero dute arduradunek. Era berean, tolosarrei artzain eta artzain-andre jantziekin parte-hartzeke deia luzatzen diete dantza taldekoek.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Altzariak.** Egongelako altzariak salgai. Armairua eta mahai eder bat ditugu, bere banku eta aulkiekin. Argazkiak ikusi nahi dituztenek, www.iragarkilaburak.com web orrialdea bisita dezakete. Interesatuak deitu 629 12 28 61 telefonora.

GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfon-

Abestea izan dute betidaniko afizio, eta ostiralean, Leidor aretoko oholtza gainera igoko dira Izaro eta Elene, euren ahotsak batu eta jendaurrean 'Batera LIVE' zuzeneko eskaintzeko

Bi ahots batera taula gainean

Itzea Urkizu

Izaro Saizar eta Elene Arandia lehengusuak dira, baina duela urte bete inguru hasi ziren euren ahotsak elkartuz, batera abesten. Ostiralean, zuzeneko eskainiko dute Leidor aretoko oholtzan, EITBko *Bi Gira* saioan egindako ibilbidea abiapuntzat hartuz.

Iazko urtarrilean aipaturiko saioa irabazi zuten geroztik, ez dira jendaurrean gehiegi agertu. Aspaldidanik buruan bueltaka ibili dute emanaldi bat antolatzearen ideia, eta lasai hartu nahi izan dute proiektua prestatzeko denbora; ikuskizunari forma eman nahi izan diote abeslarietara, presarik gabe.

Kontzertua iluntze aldean hasiko da, 20:30ean, eta bikotearen estreinaldia izango da, Leidor aretoko oholtzan. Telebistako saioa irabazteko bidean landu zituzten abesti batzuk izango dira errepertorioa osatuko dutenak, eta euren aukeraturako beste hainbat kantuk osatuko dute emanaldia. Batez ere, abesti ezagunen bertsioak eskainiko dituzte. 80. hamarkadaren jiran sortutako doinuak izango dira protagonista. Euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz abestuko dute; Arthea Franklin nahiz Whitney Houstonen ildoko doinuak, edo Mikel Laboarenak.

Musika ere zuzenean

Leidorreko emanaldian ahotsa izango da protagonista, baina atzean, zuzeneko musika izango dute lagun. Eskarmentudun musikariak dira denak, eta taula gainean aritza ohituak. Horrela beraz, Joxe Mendizabal teklatu eta akordeoiarekin, Iñigo Asensio piano eta teklatuarekin, Juanjo Falcon baxuarekin, Jorge Gonzalez Baragaña gitarra elektriko eta akustikoarekin, eta Julen Apeztexea gaztea bateria eta perkusioarekin ariko dira.



Lehenengo kontzertua Tolosan eskainiko du bikoteak. HITZA

«Gure esker ona adierazi nahi diegu alboan izan ditugune»

I. Urkizu

Izaro eta Elenek, ostiraleko emanaldiaz zerbait gehiago kontatu diote **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**-ri.

Zein estilo suertatzen zaizue erosen abesterakoan?

Bakoitzak bere gustu musikalak izan arren, estilo desberdinak abestera ohituak gaudela esan daiteke. Gure kasuan, asko atsegin ditugu emakume beltzen ahotsak, baita erritmo biziak dituzten kantuek ere.

Musikariak lehendik ezagutzen zenuztuzten, edo zuzeneko arako espreski musikarien bila ibili zarete?

Nik (Elene Arandiak) batzuk ezagutzen nituen. Ikuskizuneko produktio musikalar arduratzen den Joxe Mendizabalekin eta Jorge Gonzalez gitarrari jotzailearekin, esaterako, urte askotan egin dut lan. Ideia gustatu zitzaion eta bertan parte hartzea erabaki zuten azkenean.

Errepertorioan sormen propioarekin al dago?

Orain irratian entzungai dagoen *I'm not alive* abestia izango da entzungai. Hala ere, kantu ezagunen bertsioak moldatu eta landu ditugu, erabat geure gustura, eta horrek ere sormen lan handia eskatzen du gure aldetik.

Zuen ogibide edo ikasketetatik ha-

ratago, gustatuko al litzaizueke musika lanbide izatea?

Euskal Herrian oso zaila da. Guk afizio bezala hartzen dugu, ondo pasatzeko eta publikoari ere hori helarazteko.


Leidorren jende asko esperoko dute, etxean zarete eta.

Gure inguruko jendea gertu sentitu dugu programa amaitu zenez geroztik, eta animo asko jaso ditugu. Kontzertuarekin gure esker ona adierazi nahi diegu guztiei.

Kontzertu gehiago programatu dituzte?

Udal batzuek interesa agertu dute, baina oraindik ez dakigu ezer. Burua Leidorren dugu, bete-

betean.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

brak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaude. Interesa dutenek dei dezatela inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04 telefono zenbakira (Gurutze).

ALOKAIRUA

■ **Taberna.** Tolosan taberna bat alokatzen dut. Lizentzia badu, eta erreformatu beharra dago. Interesa duen edonork,

dei dezala 619 48 86 47 telefono zenbakira.

BESTELAKOAK

■ **Belardia.** Segan ibiltzeko moduko belaze bila gailtzen taldea gara. Ikasteko eta entrenamenduetarako erabili nahiko genuke. Belarra mozteko lekuri duenak dei dezala 634 45 91 10 telefono zenbakira.

Korrika apirilaren 13an iritsiko da eskualdera, Adunatik barrena



Korrika 17 herenegun aurkeztu zuten Tolosako Lizardi elkarteetan. A. IMAZ

Korrika batzordeek ekitaldi ugari antolatu dituzte ondorengo egunetan, beroketa lanak egiteko

Asier Imaz

Nola deitu behar diogu euskara ikasten edo irakasten duen euskaltzaleari? Nola deitu euskaraz lan egiten duenari? Euskaraz sorzen duen artistari? Euskaraz diharduen kirolariari? Nola deitu behar diogu lehenengo hitza euskaraz botatzen duen tabernari edo dendariari? Bada, AEK-k eta Korrikak horiei guztiei izena ipini nahi diete Korrika 17rekin: «Euskara darabilena euskalakaria da».

↓ Tolosaldeko ekitaldiak

ADUNA

■ **Apirilak 9, larunbata.** Afaria herriko elkarteetan, 21:00etan.

ALEGIA

■ **Apirilak 10, igandea.** Hamaitakotako herriko plazan.

AMEZKETA

■ **Apirilak 7, osteguna.** Dokumental emanaldia 19:00etan kultur etxean.

■ **Apirilak 10, igandea.** Korrika-

Hausnarketa honetatik sortu da aurtengo leloa: *Maitatu, ikasi, ari... euskalakari!*

Korrika 17 apirilaren 7an hasiko da Trebiñun. 2.170 kilometro egin ondoren, apirilaren 17an iritsiko da Donostiara. Tolosaldeara, aldiz, apirilaren 13an, asteazkenean, goizean goiz iritsiko da Andoaindik barrena.

Korrika edizio guztietan gertatzen den moduan, euskararen aldeko mezua indartzeko, berarekin lotura daukan norbait omentzen dute AEKKokideek. Kasu honetan, Euskaltzaindia da korrika 17ren omendua.

Korrika 17 giroten

Eskualdeko hainbat herritan beroketak egiten hasi dira jadanik. Horren adibide, Korrika batzor-

ren aldeko goiza, 12:00etan herriko plazan.

TOLOSA

■ **Bihar, hilak 31.** Dokumental emanaldia 19:00etan kultur etxeko areto nagusian.

■ **Apirilak 2, larunbata.** Material salmenta goizean, Trianguloan.

■ **Apirilak 13, asteazkena.** Korrika Txikia 10:00etan irtengo da Trianguloatik. Bi adar irtengo dira. Bata Samaniego eta Orixek ikastetxeetara doana, eta bes-

↓ Ibilbidea

APIRILAK 13, ASTEAZKENA

- **Aduna:** 06:16. Andoaindik etorriko da Korrika 17.
- **Villabona:** 06:42.
- **Irua:** 06:55.
- **Anoeta:** 07:08.
- **Tolosa:** 07:21.
- **Ibarra:** 07:53.
- **Tolosa:** 08:00.
- **Alegia:** 08:33.
- **Ikaztegieta:** 08:46.

deek antolatu dituzten ekitaldiak dira. Alde batetik, Euskaltzaindiari omenaldia egiteko egin den dokumentala dago: *Zenbait gazte ausari*. Bestetik, mus txapelketak eta material salmentak aurkitzen dira; Korrika Txikia ahaztu gabe.

tea, Hirukide eta Laskorain ikas-tetxetara doana.

VILLABONA

■ **Apirilak 1, ostirala.** Material salmenta Berdura plazan, 18:00etatik 20:30era.

■ **Apirilak 7, osteguna.** Dokumental emanaldia 19:00etan, udal etxean.

■ **Apirilak 16, larunbata.** Korrika herrikoia, lasterketa. 18:00etatik 20:00etara kalean. Gugaz taldearen kontzertua Berdura plazan, ordu berean.

→ Laburrak

Bilboko manifestaziora joateko autobusak

POLITIKA › Gernikako Akordio-ko sinatzaileek, *Euskal Herriarentzat normalizazioa. Legializazioa orain!* lelopean manifestazioa antolatu dute apirilak 2, larunbatean, Bilbon. Bertara joateko, autobusak jarriko dituzte eskualdean. Tolosatik, San Frantziskotik, 15:30ean aterako da, eta izena ostiral eguerdirako eman beharko da Raku tabernan. Amezketa, Alegia, Altzo, Orendain eta Ikaztegiatik ere autobusa irtengo da. Zerrendak ohiko lekuetan jarri dituzte. Izena osteguna baino lehen eman beharko da.

Ezker abertzalearen batzarra gaur, 20:00etan

TOLOSA › Ezker abertzaleak egoera politikoaren eta hauteskundearen inguruan aritzeko herri batzarra antolatu du. Batzar hau gaur Tolosako kultur etxean izango da, beheko solairuan, 20:00etan. Bizi dugun momentu politikoaren garrantzia azpimarratuz, Tolosako ezker abertzaleak bertan parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak.

Asis Sarearen otoitzaldia ostegunean, 19:30ean

TOLOSA › Ostegun honetan, hilaren 31n, Asis Sarearen otoitzaldi bilkura egingo da Tolosan, Klarisen komentuan, 19:30ean. Dagoeneko 2.000 lagun inguru biltzen ditu Asis Sareak, bertako kideek azaldu dutenez.

Lloreteria joateko aukera Harizpe elkartearekin

TOLOSA › Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak Lloreteria oporrak antolatu ditu. 15 egun eta 14 gau igaroko dituzte bertan, ekainaren tetik aurrera. Bazkideek 390 euro ordaindu beharko dituzte, bazkide ez direnek 396. Izena elkartearen eman behar da.

Gutuna

Skate pistan, en español

Joan den larunbatean inauguratu zuen Tolosako Skate pista. Arratsaldez hurbildu nintzen haurrak hartuta. Skate txapelketa ari zen ospatzen, jende ugari, giro ederra, eta musika are ederragoa.

Hori bai, esatariak (ni bertan egon nintzan ia 2 ordutan) ez zuen hitz bat euskaraz egin, den dena gazteleraz egin zuen, bue- no gauza bakarra esan zuen euskaraz «zakarrak zakarrontzira botatzeko». Horrek, esatariak euskaldunekiko duen errespetu eskasa adierazten du, tartean ere adin txikiko euskaldun elebakarrak zeudela kontutan izan gabe.

Okerrena ordea zera da, ekitaldia Tolosako Udalak ere antolatzen eta finantzatzen zuela, eta udaleko zinegotzi bat, Jose-lu Andueza hain zuzen, esatariaren ondoan egon zela denbora guztian eta ez zuela nonbait euskararen 'hutsunea' nabaritu. Gainera ez dezagun ahaztu egun horietan, udala ere partaide den *Ahozahoko, hari eta ari* euskararen erabilera sustatzeko kanpaina bete betean zegoela.

Nola nahi da euskararen erabilera sustatu gazteen artean, Aitzolen testuak megafonotik jarritako? Euskara «betiko rolloetarako» bakarrik erabiliz?

Skate pistaren ikusleen batz besteko adina ez zen 18 urtera iritsiko, beraz, seguruenik %100a gutxienez euskaradun hartzailea, eta Tolosako Udalak ordaintzen duen eta udal instalakuntzetan gauzatzen den ekitaldian esatariari ez dio euskaraz «ere» egiteko baldintzarik jarri?

Ze adar jotze da hau? Egun horretan behintzat, Tolosako Udalak gazteleraren erabilera ondo sustatu zuen gazteteroan artean; «*español en libertad, felicidad-des*»!

■ **Aitor Iztueta.** Tolosa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak lanpostu hau bete behar du:

BANATZAILEA/BUZONEATZAILEA LEITZAN

Lan baldintzak:
Goizeko 7:00etatik 11:00etara.
Astean 4 egun. Asteartetik ostiralera.

Interesatuak deitu lehenbailehen
943-30 35 33 telefono zenbakira.



Juan Garmendia Larrañagak iragan ostiralean aurkeztu zuen bere azken lana, Tolosako udaletxean. HITZA

Juan Garmendia Larrañagak «denetik zerbait duen liburua» aurkeztu du

Tolosako Seme Kuttunak etxeko artxiboan gordeta zituen lanen bilduma argitaratu du

Asier Imaz

Juan Garmendia Larrañagak bilduma liburua aurkeztu zuen iragan ostiralean. *Agerkari etno-historikoa*. Nere paperetatik izenbu-

rua du ikerlari beterranoaren azken lanak. Liburua editatu du Eusko Ikaskuntzak. Larrañaga 1926. urtean jaio zen Tolosan, eta egun bertako Seme Kuttuna da.

Etnografo, historialari eta idazlea ez zen bakarrik egon aurkezpen ekitaldian. Berarekin egon ziren, besteak beste, Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea; Jose Mari Muñoa, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria eta Jonan Fernandez, Baketik Bake Zentroko Zuzendari tolosarra.

Agerkari etno-historikoa. Nere paperetatik lanak eduki ugari eta anitzak dituzten testuak biltzen ditu, gehienak argitaratu gabek, mende erdi luzeko ibilbidearen fruitu.

Alfabetikoki ordenatuta, landa ikerketa eta artxibo lanek osatzen dute argitalpena, baita hitzaldi, aurkezpen eta prentsan argitaratutako artikuluek. Gai ugari lantzen dira bertan: mitologia eta kondairak, errito eta tradizioak, artisautza eta lanbideak, biografiak, dokumentazio historikoa, lexikologia eta esaera zaharrak.

Eusko Ikaskuntzak editatu duen lana Nestor Basterretxea artistak okasiorako egindako marrazkiekin ilustratua dago.

Etxeko artxiboko lanekin

Liburua argitaratzerako unean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren «laguntza-txoa» izan du Juan Garmendia Larrañagak. Egilearen esanetan, liburua *miszelanea* bat bezalakoa da, «denetatik dauka zerbait».

Ikerlariak bere ibilbideaz hitz egiterakoan, hanka bat artxiboan eta bestea kanpo ikerketan eduki duela aipatzen du. Bi lanak ditu gustuko eta ofizioa pixkanaka ikasten dela onartu du.

Larrañagak jadanik 10 bilduma liburu argitaratuak ditu. Azken hau, etxeko artxiboan zituen lanekin osatu du. Nestor Basterretxearen kolaborazioaz galduta, esker oneko hitzak izan ditu tolosarrak. Aurrez, Oteiza eta Julio Karo bezalako artisten laguntza ere izan duela gogoratu du Larrañagak, bere lanetan osagarri gisa.

Japonia ezagutzeko aukera dago Amalur jardunaldietan

Apirilaren 9ra bitarte hamaika ekitaldi antolatu dituzte Tolosako Ekinbide Etxeko kideek

A. Imaz

Azken asteetan Japonia gertu-gotik ezagutzeko aukera eduki dugu, albiste txarrak medio. Bere ohiko aurpegia erakusteko ordea, Tolosako Ekinbide Etxeak Amalur Jardunaldiak 2011 antolatu zituen. Apirilaren 9ra arte, uharte honetako paisaiak, kulturak, historia, pertsonak eta abar, Tolosan izango dira ikusgai.

Sei urte pasa dira Amalur Jardunaldiak abian jarri zituztenetik. Ekialdeko Afrika (2006), Nepal (2007), Artikoa (2008), Amazo-

nia (2009) eta Basamortuetara (2010) bidaia eta gero, aurtun Japoniara egingo dute bidaia. Ekinbide Etxeko arduradunek azaldu dutenez, «mundua guregana ekartzeko asmoz sortu zen Amalur, eta zuei guztioi gonbitea luzatzen dizuegu, gurekin mundu hori deskubritzera etor zaitezten. Hori da eta bidaia futsa, ezagutu eta maitatzea. Natura, Bidaia, antropologia... herrialde bat deskubritzeko abiapuntua, behar bada, gu geuk hobeto ezagutzeko aitzakia».

Aurtengo lehen ekimena martxoaren 28an eta 29an egin zuten. Mikel Arredondok *Zure bidaia antolatu* izeneko tailerra zuzendu zuen. Apirilaren 4ean eta 5ean jarraipena edukiko du tailerrak. Horrez gain, beste hamaika ekitaldi antolatu dituzte apirilaren 9ra bitarte.

↓ Egitaraua

GAUR, HILAK 30

■ **19:15ean**. Zine Kluba Leidorren. Takeshi Kitano zuzendaria *Zatoich* pelikula.

APIRILAK 6, ASTEAZKENA

■ **19:30ean**. Ander Elorzaren dokumentalaren aurkezpena Topic-en, euskaraz. *Extralurtar lurraldea*.

APIRILAK 7, OSTEAGUNA

■ **19:30ean**. Sergi Ramisen hitzaldia Topic-en, *Japonia, erabilerajarraibideak* gaiaren inguruan. Gaztelerez.

APIRILAK 8, OSTIRALA

■ **19:30ean**. Rosa Maria Calafen

hitzaldia Topic-en. *Japonia, ez aurrera ez atzera geratu den potentziak nortasuna bilatzen du* izango da gaia. Gaztelerez.

APIRILAK 6, 7, 8 ETA 9

■ **Bonsai** eta **Sukes** erakusketa Honbu Kenpo-Kai elkartearen eskutik.

APIRILAK 9, ASTEAZKENA

■ **10:00etan**. Honbu Kenpo-Kai elkartearen eskutik Shodo edo japoniar idazkera tailerra Topic-en. Sarrera 5 euro.

■ **11:30ean**. Honbu Kenpo-Kai elkartearen eskutik Ikebana tailerra. Sarrera 10 euro.

■ **10:00etan**. Honbu Kenpo-Kai elkartearen eskutik Kenpo-Kai erakustaldia.

17. Korrikako jantziak
Euskalherrioplaza.com-en
aurkituko dituzu:

www.euskalherrioplaza.com



lazio Amalur jardunaldiak basamortuen ingurukoak izango ziren. HITZA

Galtzeko arriskuan dagoen herriko ondare toponimikoa bildu dute

Imanol Goikoetxeak egin du ikerketa lana, eta aste honetan ikusgai dago Gurea Zinemako erakusketa gelan

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Ikermap enpresako Imanol Goikoetxeak Amasa-Villabonako toponimia jasotzeko ikerketa lana egin du. Horretarako, herriko kultur ondare toponimikoa biltzeko, Amasa-Villabonako udalarekiko artxibora eta adinekoengana jo du. Udalak, ikerketa lan honekin, Amasa-Villabonako leku izenak berreskuratzea, eta beren idazkera normalizatzea izan du helburu. Era berean, bildutako leku izen guztiak jendaurrean jarri, eta herritarren artean zabaltzen saiatu dira. Horretarako erakusketa jarri dute Gurea Zinema aretoko erakusketa gelan. Bertatik pasatzen direnen ekarpenak ere jaso nahi dituzte.

Ikerketa honek, Amasa-Villabonako Udalarentzat garrantzi estrategikoa du: «Arrazoi askogatik, toponimia geure ondarea da, zaindu eta bildu beharrekoa. Gero eta informatzaile gutxiago izango baititugu».

Egindako lanari esker Amasa-Villabonako arbasoen eta herritarren ohiturak, kale, auzo nahiz etxeetako jabeen izen eta bizi ohiturak gertuagotik ezagutzeko aukera ezin hobea dago. Eta kultur



Inaugurazioan testigantzak eman dituztenei omenalditxoa egin zieten. MAIZ



Ekarpenak jasotzeko eta zalantzak argitzeko Goikoetxea bertan dago. MAIZ

tradizioaren informazio sakonagoa ere badute herritarrek.

Baserriz baserri, datu bila

Urtebetean Imanol Goikoetxea, udalarekiko artxiboan eta baserri baserri ibili da, datuen bila. Azterketa lana hiru zatitan bana-

tu du: alde batetik, toponimia biziaren bilketa egiten du bertako inguruak ezagutzen dituzten baserriarrek; eta bestetik, lekuko dokumentalen, hau da, artxiboko datuen, azterketa egin dute. Ondoren, idatzizko forma arautuaren proposamena luzatu du. Az-

↓ Erakusketa

'AMASA-VILLABONAKO LEKUEN IZENAK'

- **Non.** Gurea Zine Aretoko erakusketa gelan.
- **18:00-20:00.** Gaurtik ostirala bitartean.
- **11:00-13:00.** Larunbatean.

terketa toponimikoko egiteko jarraitu ohi duten metodologia da hauxe.

Goikoetxearen hitzetan, orokorrean, baserri baserri testigantza bila gerturatu denean, oso harriera ona egin diote.

Hauen artean, ordea, gehien goa adineko pertsonak izan direlako. Eta, egoera ez da onena. Gaur egun, ez dago transmisiorik, eta izen askok desagertzeko arriskua dute horrexegatik.

200 dokumentu inguru aztertu dituzte Ikermap enpresako kideek, eta azkenean, 825 toponimo inguru bildu eta arautu dituzte. Mapa toponimiko berria egingo dute, eta txostenean guztia jasota geratuko da. Jendearen joan-etorria agerikoa da erakusketan, eta Goikoetxea gustura agertu da.

Erakusketaren inaugurazioa pasa den ostiralean izan zen, eta bertan laguntza eman duten guztiei omenaldia egin zieten.

Udal ordezkarienez gain, bertan izan zen Mikel Gorrotxategi, Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko idazkaria ere.

Astean behin euskaraz hitz egiteko laguntzaileak behar dituzte

Lau urte dituen Mintzalaguna egitasmoak aurrera egiteko euskaldun zaharrak behar dira

E. Maiz Amasa-Villabona / Zizurkil

Villabonako eta Zizurkilgo Euskara Zerbitzuek laguntzaileak behar dituzte Mintzalaguna egitasmorako. Haien eginkizuna astean behin bi euskara ikaslerekin geratzea litzateke, eta ordubetez, euskaraz aritzea.

Helburua, euskara ikasten ari direnei, kalean hitz egiteko konfiantza eta euskarazko harreman zirkulua zabaltzen laguntzea da. Horretarako, hiru laguneko taldeak osatzen dira. Talde hauetako kideek konpromisoa hartzen dute, astean behin, ordubetez edo nahi duten jarduera egiten duten bitartean, elkarrekin euskaraz aritzea.

Euskara ikasten ari diren ikasleei laguntzeko, oso garrantzitsua da lan boluntario hau. Oso emaitza positiboak eman dituela, adierazi dute euskara zerbitzuetatik, eta laguntzaile izan edo egitasmoari buruzko informazio gehiago nahi duenak Villabonako Euskara Zerbitzuko telefono zenbakira deitu, 943 69 35 01 edota euskara@villabona.net helbidera idatz dezake.

Irudia Amasa-Villabona



878 LAGUN, AIZKARDIKO IBILALDIAN

43. Aizkardiko ibilaldi luzea eta motza izan ziren, igande. Urtero bezala, aruten ere, parte-hartzea handia izan da. Eguraldi txarra iragarriagatik ere, izena emana zuten 1.068 lagunetatik, 878 la-

gunek parte hartzeko erabakia hartu zuten. Aizkardi Mendi Elkarte kideek, eskerrak eman nahi dizkie guztia prestatzen lagundu duten elkarte eta norbanako guztiei. HITZA



Jose Ramon Zubillagari tarte berezia egingo diote Artubi elkartekoek

Zubillaga Bedaiotik Argentinara emigratu zuen; hiru liburutan azkena webgunean argitaratuko dute

Imanol Garcia Bedaio

Bedaio Artubi elkartearen aurten ere hainbat ekimen bideratzen ari da, auzoa ezagutarazteko eta bedaiotaren artean harremanak sendotzeko. Jose Ramon Zubillagari tarte berezia egingo diote. Aurten Abaetxe zaharra base-rrian jaio zela 120 urte betetzen dira. Garai hartako euskaldun asko bezala, atzerrira, Argentinara, joan behar izan zuen. Bertan idatzi zituen *Lardasketa* eta *Euskaldunak Argentinan* liburuak. Bada, ordea, idatzi zuen beste li-



Asteburuan emakumeen bazkaria egin zuten Abaetxen. HITZA

buru bat, baina argitaratzera iritsi ez zena: *Ene sorterrria*, 1965. urtean idatzia.

Aurten, Zubillagaren familiari esker, eta www.bedaio.com web orrialdearen bitartez, astiro-astiro liburua pasarte pasarte argitaratzen joango dira. Nekane Iza-

girre bedaiotarrak dioenez, «Jose Ramonek liburuan agerian uzten du, oinak Argentinan izan arren, bihotza bere sorterrian, Bedaion, duela. '...auzoko oitura zaarrak eta onak jaulkitu nai dizkizuet...', liburuan dion bezala».

Abaetxe jatetxearekin elkarla-



Joxe Ramon Zubillaga. HITZA

nean, Artubik «ekitaldi erakargarri» bete du 2011ko egutegia, bai bedaiotarrentzat eta baita bertarra joaten diren guztientzat ere. Urtarrilean hartu zuten Artubiko batzordekide berriek erreleboa, eta hauek «gogotsu eta indartsu» ekin diote urteari. «Lan

egiteko nahia, gaitasuna eta ilusioa bai bedaiotarrok, baina baliabide urriak», gaineratu du Izagirrek.

Dagoeneko bi ekitaldi egin dira. Otsailean barrikotea egin zuten, eta 65 lagun izan ziren bertan. Aurreko asteburuan, Bedaio emakumei beraien seme eta senarrek afaria prestatu zieten Abaetxe jatetxean. Datorren hilerako informatika ikastaroa antolatu dute, eta Interneten murgiltzeko aukera izango da.

Kirol alorrean, ekainean V. Mendi martxa eta BTT proba izango dira. Aurten, gainera, BTT zirkuitua aldatu eta luzatu egingo da, parte-hartzaileentzat ahalik eta erakargarrien izan dadin. Irailaren azkeneko igandean ez du hutsik egingo IV. Zaldi Raid lasterketak.

Kulturari dagokionez, ekainean izango den asteburu kulturala antolatzen ari dira. Harri Jaiarekin batera, besteak beste, argazki zaharren erakusketa, eta Bedaioko haurrekin batera «Tolosako musika eskolako haurren emaldia egingo dira».

Txintxarri Txikikoak, Haur Koruen Tailerreko saioan

Ehun abeslari inguruk tailerraren ondorengo kontzertua eman zuten Hondarribian, tartean Alegiako abesbatzakoek

Nerea Pikabea Alegia

Hondarribiko Portuko eliza jendez lepo bete zen joan zen igandean V. Haur Koruen Tailerreko abeslarien kontzertua entzuteko. 7 eta 14 urte bitarteko 100 kantarien artean zeuden Alegiako

Txintxarri Txiki abesbatzako abeslariak. Asteburuan prestatutako kantuak jendaurrean erakutsi zituzten. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako ekimena da topaketa, eta abeslari gazteen artean musika eta harremanak lantzea du helburu. Bitaldetan banatuta lan egin zuten asteburuan: txikiak Gasteizko Nagore Alanguarekin aritu ziren, eta zaharrenek, berriz, Errenterriko Imanol Elizasurekin. Guztira hamar abesbatza elkartu ziren. Idoia Iraola tolosarrak zuzentzen duen taldeaz gain, Tolosako Ho-

dei Truk koruak ere parte hartu zuten.

Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartearen ustez, «positiboak dira horrelako ekimenak, euren adineko eta ezaugarri bereko lagunak ezagutzeko aukera baitute, euren bezalaxe abesbatza batean kantatzen dutenekin elkarrekin egoteko aukera baitute. Oso aberatsak dira era horretako tailerrak talde lanerako eta taldea arnaberritzeko. Beste zuzendarien lan egiteko modua ezagutzen dute, eta hainbat kantu eta erritmo lantzeko aukera dute».




Haur Koruen Tailerrean parte hartu zutenak, kontzertuan. IÑAKI MEZQUITA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena


ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskaintzen ditugu dena erazagarria izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Gurasoei zuzendutako jardunaldiak antolatu dituzte eskola txikiek

Jardunaldiak larunbatean izango dira; bi tailer eta hitzaldia izango dira egitarauaren oinarriak

Maier Ugartemendia Larraul

Gurasoei zuzendutako jardunaldiak antolatu dituzte eskola txikiek. Topaketa hauek larunbat honetan izango dira, Larraulgo eskolan.

Jardunaldietan gurasoei zuzendutako tailerrak eta hitzaldia izango dira. Egunari hasiera emango diete, gurasoei harrera egingez. Jarraian, tailerren lehenengo saioari hasiera emango diete. Parte-hartzaileak bi taldetan banatuko dituzte, bi tailerren parte hartu ahal izateko. Tailerren lehen saioa 10:45ean amaituko da, eta segidan hasiko da bigarren saioa. Aipatu bezala, bi tailer egongo dira.

Ingelesa eskola txikietan eta adin desberdinetako haurrak gela berean egoteak dakartzan onurak da bi tailerretako bat. Gabiriako eskola txikian ingelesa irakasten duen Mare Goikoetxeak eskainiko du tailer hau. Berak Gabirian 6 urte daramatza ingelesa erakusten beste arlo batzuen artean. Bertan INEBI proiektua ardatz harturik lantzen dute ingelesa.

Beste tailerra *Errespetu faltaren atzean zer dago?* izango da. Donostiako Peñafloreda eta Usandizaga institutuak psikologo lanetan aritzen den Juan Carlos Alonso izango da gidaria. Ohiko



Jardunaldiak Larraulgo eskolan izango dira. ENERITZ MAIZ

psikologo lanaz gain, gurasoei zuzendutako formazio edo jardunaldi saioak prestatzen aritzen da bera.

Tailerren bigarren saioaren ondoren, atsedean bat hartuko dute. Mokadutxo bat ere izango da jardunaldietan parte hartzen duten guztientzat, baita umeentzat ere.

Atsedean ondoren, *Eskola Txikietako ardatz metodologikoa* hitzaldia egongo da. Hizlaria Elena Laiz Sasiain izango da, eta eskola txikietan aplikatzen den metodologiari buruzko azalpenak entzun ahal izango dira.

Izena emateko

Jardunaldietan parte hartzeko orri bat bete behar da norberaren datuekin, eta guraso elkarteetara edota irati@eskolatxikiak.org helbidera bidali behar da. Nahi

duenak jardunaldietan zaintza zerbitzua ere izango du, honek gurasoen parte hartzea erraztuko duen.

↓ Jardunaldiak

EGITARAUA

- **09:30.** Jardunaldietan parte hartuko duten gurasoei harrera egingo zaie.
- **09:45-10:45.** Tailerren lehenengo saioa. Parte-hartzaileak bi taldetan banatuko dira, bi tailerretan parte hartu ahal izateko aukera izan dezaten.
- **10:45-11:45.** Tailerren bigarren saioa.
- **11:45-12:15.** Atsedena.
- **12:15-13:15.** *Eskola Txikietako ardatz metodologikoa* hitzaldia.

Korrika Oinezekin prestatuko dute Korrikaren ongietorria

Korrikaren inguruan antolatu nahi diren ekitaldien inguruko bilera egingo dute, ostiralean, kultur etxean

M.U. Ibarra

Ibarrako Korrika Batzordeak bilera bat egingo du antolatu nahi diren ekitaldiei buruz hitz egiteko. Bilera etzi izango da, hilaren 31n, 19:30ean, kultur etxean. Bertan, bi gaiak buruz hitz egingo dute. Alde batetik, Korrikako kilometroa erosi nahi dutenentzat informazioa emango dute. Bestetik, hurrengo egunetarako antolatu dituzten ekitaldien inguruan hitz egingo dute. Ostiralean, Korrika Oinez poteoa eta kartel jar-

tze irekia egingo dute. Asmoa da Korrikaren inguruan herria girotzeko kartelak jartzea herrian zehar, tragoxka batzuk hartuz, eta musika eta zarata lagun dituztela. Ostiraleko bileran, egun honetan jarri beharreko kartelak prestatuko dituzte.

Apirilaren 7an, ostegunean, *Zenbait gazte ausari* dokumentala ikusi ahal izango da, kultur etxean, 19:30ean. Azkenik, Korrika Txikia apirilaren 12an, astegunean, egingo dute. 15:30ean Idoia plaza plazatik abiatu, eta San Bartolome plazara joango dira. Plazan, musika, txokolata eta gailetak egongo dira; giro onaz gain.

Datozen ekitaldi hauetan lagundu eta parte hartu nahi duten guztiak gonbidatu ditu bilera-ira Ibarrako Korrika 17ko batzordeak.

Antzibar enpresak eraikiko du balio anitzeko eraikina

Lau milioitik gorakoa da aipatutako obren aurrekontua; pleguetan ezarritako kopurua baino milioi bat gutxiago

M.U. Ibarra

Ibarrako Udalak, atzoko plenoan, Antzibar enpresari adjudikatu zion behin betiko balio anitzeko eraikinaren eta aldameneko orubean eraikiko diren etxebizitz

eraikuntza, 4.121.072 euroen truke. Aurrekontu hau baldintzen pleguetan, hasieran ezarritako kopurua baino milioi bat euro gutxiago da, eta «alderdi politikoetako ordezkariak ondo gogoan hartu du aipatutako hobekuntza garantziztu hau».

Apirilean zehar hasiko dira eraikuntza lanak. Lanak 2012. urtean amaitzea aurreikusten dute. Txelo Romeo, Ibarrako alkatea, azpigiatura honek ibarrentzat «ondorio onak» izango dituela esan zuen.

Riaño eta Irazu Banakako Aizkora Txapelketan izango dira

Lehenengo jardunaldiak asteburu honetan jokatu dira; Riaño eta Irazuk igandekoan hartuko dute parte

M.U.

Asteburu honetan emango diete hasiera Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketari. Igandeko saioan parte hartuko dute Irazu zizurkildarrak, eta Riaño leitzarrak.

Binakako Aizkora Txapelketa amaitu berria bada ere, asteburu

honetan emango diete hasiera banakakoari, larunbateko eta igandeko saioekin. Txapelketan lau maila izango dira: urrezko maila, etorkizuneko maila (23 urte azpikoak), gazte maila (19 urte azpikoak) eta gaztetxo maila (15 urte azpikoak). Azken maila hau, aurtengo berrikuntza izango da. Guztira 79 aizkolarik eman dute izena txapelketa honetan.

Lehen jardunaldiak

Lehen bi jardunaldiak asteburu honetan izango dira. Zegaman eta Urrestillan. Kanporaketak izango dira saio hauek. Bakoitzean 11 aizkolarik hartuko dute par-

te. Saikapenean lehenengo geratzen diren bi aizkolariek hurrengo jardunaldian parte hartu ahal izango dute.

Lehenengo jardunaldia larunbatean jokatu da Zegaman, 19:30ean. Bigarrena Urrestillako pilotalekuan izango da, igandean. Saioa 12:30ean hasiko da. Kanporaketa honetan parte hartuko duten 11 aizkolarien artean daude Riaño leitzarra eta Irazu zizurkildarra.

Aizkolarik saikapeneko lehenengo bi postuetan geratzen badira, Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketan aurrera jarraitu ahal izango dute.

GERENTEA

Erreferentzia: (11-ETXG)

Eskatzen da:

- Ingeniaritza, Enpresa Kudeaketa edo Ekonomia arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orri eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo balioak den euskara maila.

Kontuan hartuko da:

- Logistika, kudeaketa eta antolaketa lanetan eskarmentua.
- Talde gidaritzan esperientzia.
- Harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.

Eskaintzen da:

- Kontratu iraunkorra.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainean.

Interesa dutenek curriculumak, martxoaren 31a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara bidali: gizabaliabideak@jarduna.net



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragari.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Anoeta.** Korrika batzordea gaur 19:00etan udaletxean. Era berean, apirilaren 9ko Korrika Eguneko bazkarira joan nahi dutenek Itzuli tabernan eman dezakete izena.
- **Anoeta.** Herriko jaiek antolatutako Jai Batzordearen bilera egingo dute bihar 19:00etan udaletxean.
- **Leitza.** Denok Bat Guraso Elkarteak *Komunikazioa* familian hitzaldia, eta adimen emozionalari buruzko tailer bat antolatu ditu datozen asteetarako. Hitzaldia bihar izango da, hilak 31, 17:00etan eskolako liburutegian. Tailerra, aldiz, apirilaren 15, 22 eta 29an izango da, 15:00etatik 16:30era. Ikastaroaren prezioa 5 eurokoa da, eta lehenbizikoa saioan kobratuko dute. Gaur da izena emateko azken eguna, eta horretarako haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako erakinetako sarreteran dauden orriak bete behar dira, edo denokbatge@hotmail.com helbidera idatzi.
- **Ibarrak.** *Lehen napar euskaldunak, lehen euskal naparrak* izeneko mahai ingurua egingo dute Subegi kultur elkartearen 19:15ean ostiralean, apirilak 1. Bertan, Iñaki Perurena izango da. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte mahai ingurura gerturatu eta galderak egitera.
- **Tolosa.** Osasun publikoaren aldeko plataformak sinadura bilketa egingo du larunbatean, apirilak 2, Trianguloa plazan goizean zehar.
- **Aduna.** Asvineneak afrikar dantzen ikastaro trinkoa antolatu du asteburu honetarako. Berrez, larunbatean bakarrik egin behar zuten tailerra, baina klasea bete denez, igandean, apirilak 3, beste saio bat eskainiko dute 16:30etik 19:00etara. Ikastaroak 20 euro balio du, baina bazkide direnek 15 euro ordaindu beharko dituzte. Izena www.asvinenea.com webgunean edo 665 738 081 telefono zenbakira deituta eman daiteke.
- **Ibarrak.** Txontxo udal ludotekak begiraleak behar ditu udarako. Eskararak egiteko derrigorrezkoa da begirale titulua eta EGA izatea. Curriculumak ibarrak@ikastola.net helbidera bidali behar dira '2011ko begiraleak' gaia zehaztuz.

Itsaso Leunda **Kirolaria**

Distantzia Motzeko Duatloiko Euskadiko Txapelketan bigarren egin zuen. Iaz ere, Euskadiko txapelkun izan zen, bai duatloi motzean eta baita distatzia olinpiko bikoitzeko triatloiean ere.

«Austrian ondo ibiliz gero, Hawaiiako txartela lor nezake»

Aitor Elduain Tolosa

Itsaso Leunda (Hernialde, 1984), Hezkuntza Fisikoko irakaslea da Hirukiden, cycling monitorea Usabalen, eta Duatloi motzetako Euskadiko txapelkunorde izan da aurten.

Iaz Euskadiko txapelkun izan zen, bai duatloi motzean eta baita distantzia olinpiko bikoitzeko triatloiean ere, eta Euskadiko txapelkunorde distantzia olinpikoko triatloiean. Iron Cat distantzia luzeko triatloia ere irabazi zuen Katalunian. 2009an eta 2008an, berriz, txirindularitzan aritu zen indar gehiagoz. Distantzia luzeko triatloiak ditu maiteen, eta gorenara iritsi nahi du horretan: Hawaii parte hartzera.

Denboraldiko lehen proban, Euskadiko Distantzia Motzeko duatloiean, Oñatin, txapelkunorde izan zinen.

Proba arraroa izan zen. Ez nuen podiumean egotetik espero, oraindik sasoi onenetik urrun nago, baina asko sufritzeko gai naizela ikusi dut, sekula ez dut hainbeste sufritu. Pentsa, publikoan zein zegoen ere ez nuen ikusi, hain estu ibili nintzen... Lehenengo aldian da proban disfrutatuta beharrean sufritu egin dudana, baina hori esperientziaren koska bat gehiago da, ondo pasatzeaz gain emaitza on bat lortu nahi bada hala izan behar baitu.

Ainhua Murua olinpiarra besterik ez zenuen izan aurretik, bizikletako partzial onena zeurea izan zen...

Cyclingean landutako oinarria da bizikletan daukadana, laneko ordutegiak eta neguak ez baitit errepidera nahi bezain beste irteko aukera eman orain arte, eta orain ordu aldatetarekin... Hori kontuan izanda indartsu nago bizikletan, hala ere, jendea izan nuen laguntzeko, haien gurgipilan jarri eta sufritzen asmatu nuen. Muruarena? Hura beste maila batean dago, munduko onenetakoa da, eta haren atzetik bigarrena izateko ilusio handia egin zidan.



HITZA

Tolosaldeko Triatloi Taldeko kide ez zara, baina oso gertukoak dituzu.

Lekeitioko Garraitz taldearekin ari naiz, bai. Baina mutil laguna bera, eta beste hainbat lagun on dira TTT-ko kideak eta haiek ibiltzen naiz entrenatzen, eta probetan ere haiek botatzen didate tarteka esku bat. Aurten TTT-n Maider Gaztañaga dago, sekulako maila du, prestatzeko denbora edukiz gero elitean aritzeko arazorik ez luke izango.

Denboraldia zeri begira ari zara prestatzen.

Austriako Iron Man proban parte hartuko dut Tolosaldeko Triatloi Taldeko beste bederatz lagunekin batera. Uztailaren 3an da proba eta hara begira ari naiz urtarriaz geroztik. Tartean Madrilgo Eco Tri Mad eta Bilboko distantzia ertaineko triatloia egingo ditut. Eta Austrian ondo ibiliz gero, Hawaii parte hartzeko txartela lor nezake.

Distantzia horretan esperientzia bakarra baina ezin hobea duzu: iaz Iron Cat irabazi egin zenuen.

Bai, egia da lasterketa oso ona atez zaitzaidala. Lasai aritu nintzen, bizkatzeko helburu hutsez atera bainintzen. Aurten, berriz, askoz txukunago ari naiz prestatzen, eta esperientzia hura plus bat den bezala presio gehigarri bat ere bada, hurrengo helburua ez baita proba amaitzea bakarrik izango. **Distantzia luzean moldatzen zara egokien.**

Dudarik gabe. Hor disfrutatzen dut gehien, ez daukat arazorik bi ordutik gora korri egiteko, beti izan naiz luzerako kirolaria, serieak egitea ez zait sekula gustatu. **Hawaiiara begira zaudela ikusteak oroitzo goxoak pizten dizkit: Dina Bilbao oroitzen naiz.**

Ez nuen ezagutu, baina badago hemen izpiritu berezi bat: parte hartu nueneko lehenengo triatloiean norbaiti Tolosaldekoa nintzela esan eta «ah, Dina Bilbao bezala», esan zidan; eta beste lehiaketa batetan nire bizikletak matxura bat zuela eta lagun batek Dinaren bizikleta zenu utzi zidan, eta epaileetako batek berehala ezagutu zuen «bizikleta hori Dina Bilbaorena da». Ilusio handia egiten dit erreferente bat baita Dina, Tolosaldeko Triatloi Taldean mito bat, eta berak egindako lanaren jarraipena bezala ere ulertzen dut nire zaletasuna.

Triatloi kirolean egiten ari zaren ibilbidean zein etapetan zaudete?

Dagoeneko esperientzia badudala uste dut. Lehiaketetan beste osatu bat ematen dit horrek. Lehen gauza asko ez nituen kontrolatzen eta horrek urduari jartzen ninduen, baina orain gauzak aldatu egin dira. Orain dator nire garairik onena errendimendua lortzeko, esperientziak batera oinarri on bat daukat, pixka bat zailtzea falta zait akaso, baina hori lortuta ea zer emateko gai naizen.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kaleb Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Danel Azkue Agirre. Gaur urte bete! Zorionak eta urte askotarako Danel! Ondo pasa eta muxu handi bat aitta, ama eta Alainen partez!



Zorionak!
Jone Agirre (Aduna). Gaur 4 urte, zorionak aitaixo eta amaxoren partetik!

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

agurrak